



Donostian, 2014ko martxoak 19an

PRENTSA OHARRA

Europako Legebiltzarrerako hauteskundearen atarian

XVII. Arrazakeriaren aurkako Martxak, europar eremuan pertsona guztientzako zirkulazio askea galdegin du

Gaur goizean aurkeztu da Koldo Mitxelena XVII. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Martxa, Trintxerpeko azokatik irtenda Donostiako Bulevarreraingo egingo dena. SOS Arrazakeriak, **medicusmundi** gipuzkoak eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak antolatuta, martxak berriz ere erakunde eta gizarte talde askoren babesarekin izango du, hain zuzen ere 58rena oraingo honetan. Halaber, bostgarren urtez jarraian, Usandizaga GHI Diseinu Grafikoko Goi mailako Heziketa Zikloko lehen ikasturteko ikasleek (www.usandizaga.com/design/) komunikazio kanpainan parte hartu dute, hala nola gaur goizean prentsaurrekoan egin den *performance*aren sortze eta eszenaratzearan.

“Zirkulatu: Europa ireki baten alde” leloarekin, Martxa hau babesten duten erakundeek eskatzen diote maiatzaren aukeratu den Europako Legebiltzar berriari egungo migrazio politikak aldatzea, Europako Batasunean joan-etorri askeari lehentasuna ematea eta pertsona etorkinen diskriminazioaren aurka ekitea.

Batasuneko eta beronen Estatuetakoko organo gidariak erabakita, arlo ekonomiko eta sozialean egindako austeritate eta murrizketa politikek, bereziki bortitzak Europa hegoaldeko hainbat estatutan, nabarmen indartu dituzte eskuin muturreko talde populistak, eta milaka lagunek sufritzen dituzten zailtasun ekonomikoak etsaitasun tresna bihurtzen dituzte etorkin langileen aurka, xenofobia eta arrazakeria areagotuz. Talde horiek eta beraien lerroko alderdi politikoek proposamenak aurkezten dituzte etorkinak legez diskriminatzeko gizarte eta politika arlo zabaletan (lana, etxebizitza, fiskalitatea, osasuna, gizarte prestazioak, boto eskubidea...), bertako langile jendearen aldeko erabaki ekonomikoak izango balira bezala. Hori da, hain zuzen, lehentasun nazionalaren politika, diskriminatzailea eta autoritarioa, eta europar legedietan pertsona ororentzat jasota dagoen lege eta tratu berdintasuna kendu nahi dute. Baina, nazio, etnia edo erlijio jatorria oinarri duen diskriminazioa legezko bihurtzea aldarri erabat ez-demokratikoa da eta ez du ezertan ere lagunduko egungo gizarte arazoak konpontzen.

Neurri berean da ez-demokratikoa logika militar edo gerrarako erabiltzea Hegoaldetik Europara datozen migrazio fluxuen kudeaketa politiketan, edo eta gaizkile erruduntzat jotzea Melilla edo Lampedusara iristen diren etorkinak. Halaber dira ez-demokratikoak hainbat europar gobernu kontserbadorek egindako proposamenak, Europako Batasunaren barruan zirkulazio askatasuna herritarren jatorriaren arabera mugatzeko.

Hau guztiau gogoan, XVII. Arrazakeria eta Xenofobiaren aurkako Martxa babesten dugun erakunde guztiok biziki eskatzen dizuegu gisa horretako proposamenak gaitzetsi ditzazuen, berdinean eskuin muturreko talde neopopulistek adieraziak izan nola haien joerako alderdi politiko edo gobernuak esanak izan. “Ezin dugu onartu Europako Batasunean, berau osatzen duten Estatuetan, ustez balio demokratikoekin bat egiten duten horietan, lehentasun nazionalen politikak gorpuztu daitezkeen, diskriminatzaileak bertako populazioaren zati, ustez desberdin, batentzat” diote erakunde antolatzaileek bere agirian.

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Martxa babesten duten erakundeak: SOS Arrazakeria · medicusmundi gipuzkoa · Coordinadora de ONG de Euskadi · Adiskidetuak · Altzako Ibiliz Solidaritza Taldea · AMHER · Asamblea de Cooperación por la Paz · Asociación Arrats · Asociación ADECO · ASOLEUS · Banda Bat · BATEGITE · Bide Bidez Elkartea · Calcutan Ondoan · Caritas · CEPA Zuloaga · CITE-CCOO de Euskadi · Economistas Sin Fronteras · EGK · EHGAM · ELA Sindikatua · Elan Euskadi · Elkarrekin Bizi · ESK Sindikatua · Esperanza Latina · Etorkinen Pastoraltza Donostia · FISC Euskal Herria · Fundación ADSIS · Fundación ADRA · Fundación EMAUS · Harresiak Apurtuz Gipuzkoa · Helduak · Haurralde Fundazioa · Interred Euskal Herria · Kaebnai · Kamelamos Adikerar · Kolore Guztiak · Komite Internazionalistak · Loiolaetxea Elkartea · Malen Etxea · Mugarik Gabe · Mugen Gainetik · Mujeres del Mundo Unidas · Mundubat · PACD Gipuzkoa · Paz y Solidaridad · Peñasca S.Coop. · Plataforma Pobreza 0 · Plazandreok · Prosalus · Rais Euskadi · Setem Hego Haizea · Sodepaz · STEE-EILAS Sindikatua · Stop Desahucios Gipuzkoa · TAU Fundazioa · Tercera edad para el tercer mundo · TANDEM Fundazioa

Argibide gehiago: **Karlos Ordóñez**, SOS Arrazakeriako kidea. Telefonoa: 943 321811 / 687079004. E-posta: info@mugak.org // **Anaitze Agirre**, SOS Arrazakeriako Komunikazio saila. Telefonoak: 943321811 / 655717292 E-posta: komunikazio@mugak.org // **Mónica Míguez**, **medicusmundi gipuzkoa-ko Komunikazio saila**. 943404740 / 650 569929. E-posta: prensa.gipuzkoa@medicusmundi.es.